

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

81 zenbakia
babestu
ekonomikoki

Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria



EAJ kanporatzeko ordua da!

Uztailaren 12an gure bozka EH Bildura eta
murrizketekin eta langile klasearen aurkako erasoekin
amaitzeko ezkerreko Gobernu baten alde doa!



Kaleko borroka da bidea!

AEB: poliziaren hilketa arrazista batek altxamendu soziala eragin du herrialde osoan

Klase arteko borroka da Trump garaitzeko bide bakarra!

EZKER IRAULTZAILE
INTERNAZIONALA

Minneapolisen polizia arrazista batek George Floyd erail ondoren piztutako altxamendu sozialak mundua astindu du. AEBetako kaleak bete dituzten ehunka mila gazte afroamerikar, latindar, zuri, asiarrak, langile eta ezkerreko aktibisten indarrak, hedapenak eta irimotasunak Donald Trumpen Gobernuaren ataka itzelean jarri du. Guardia Nazionala 50.000 agenteen etxeratze-agindua eta errepresio-planak zapuztu ez ezik, protesta oldeak kapitalismo estatubatuarren lapiko ustela agerian utzi du. Mugimendu zoragarri honen erreplikak, Belgikan, Britainia Handian, Australian, Euskal Herrian, Espainiako Estatuan beste herrialde askoren artean masa-agerpenekin, klaseen arteko borrokan inflexio-puntu berri bat markatzen du.

Mugimendua AEB guztira hedatu da

Estatuko botereek babesten duten makineria polizial kriminalak eraildako gazte eta langile afroamerikarren zerrendak ez du amaierarik Amerikako Estatu Batuetan. Baina polizia-indarkeria arrazistaren ekintza horrek zerrendara izen bat gehitzeaz gain, klase agintari estatubatuarra aspalditik beldurtzen duena eragin du: gizartearen eratzeko joan diren kontraesan guztiak mugimendua berean elkartu dira.

Krisi ekonomiko basatia eta eragiten ari den langabezia masiboa, oinarri-

zko gizarte-zerbitzuen eta osasun publikoaren erabateko gabeziarekin uztartzen dira; aberastasun ikaragarria biltzen duen enpresari gutxi batzuek milioika familia pobreziara eta bazterketa sozialera kondenatzen dituzte, Washingtongo politikariek Wall Streeterako erreskate planak onartzen dituzten bitartean. Koronabirusaren pandemiak kapitalismo estatubatuarren lapiko ustela utzi du agerian: hildako gehien dituen herrialdea da (datozen asteetan 200.000 hildako izan daitezke) eta klase arteko arrakala etengabe handitzen ari da.

“No justice, no peace” edo “Black Lives Matter” oihukatuz, protestak Minneapolisen hasi ziren Floyd hil eta hurrengo egunean. Milaka pertsonak kaleak modu baketsuan hartu eta Polizia Sailera abiatu ziren pankartekin justizia eskatuz. Poliziak gas negar-eragileak eta gomazko balak jaurtiz erantzun zion mobilizazioari. Baian hurrengo egunetan zehar gogortu zuten errepresio bortitzak ez zituen manifestariak beldurtu eta legitimoki mobilizazioak defendatzeari ekin zioten.

Trumpen hirian Guardia Nazionala 550 kide zabaltzea agindu zuen. Bigarren egunean, manifestari bat hil zen poliziaren tiro batek jota, gas negar-eragileek kargen erdian. Milaka eta mila gazte beltz, zuri, asiarrak, langile eta adinekoen determinazioa eta ausardia mundu osoan ikusi ahal izan da sare sozialetan dabiltzan ehunka bideori esker. Baita poliziaren basakeria ere. Baina indarkeria poliziala gupidarik gabe eta indar osoz erabili arren, ezin izan zuten era-

gotzi hiriko polizia-etxeetako bati su ematea, eta poliziek ihes egin behar izatea altxamenduak aurrera egiten zuen bitartean.

Irudiok iragan hilabeteetan Santiagon, Bogotan, Quiton edo Parisen izandako gertakari iraultzaile handiak ekartzen dizkigute gogora. Altxamenduari ekin dion zapalduak dira, sistema hiltzaile baten aurka, eskaintzen dien bakarra errepresioa, hilketak eta zapalkuntza gupidagabea besterik ez baita. Borrokariaren belaunaldi berria sortu da *burdinezko mai-lu* honen aurka eta kapitalistek argi ikus dezakete hori.

Klase arteko borroka bete betean

Donald Trump sutara gasolina botaz mugitu da gatazka honetan. Osasun-krisian axolagabekeriaren txapelduna izan da, osasuna multinazionalen irabazi ekonomikoaren negozio hutsa izatera bideratzearen lehena. Finantza- eta enpresa-oligarkia aberasteko herria bazterrean utzi ondoren, plutokrata honek ez du zalantzarik izan gerra mezuak zabaltzeko. Tiroketak lehenbailehen hasteko deia egin du, armada kalera ateratzeko mehatxua eta protestetan aktiboki parte hartu duten erakunde ezkerreko eta antifaxistak berehala legez kanpo uztea proposatu du.

Hain zuzen ere, jarrera probokatzaile eta desafiatzaile horrek areagotu ditu herrialde osoan mobilizazioak. Kontrairaultzaren kolpeak iraultza hauspotzen du. Lau egun baino gutxiagoan, milaka eta milaka pertsonak hogeita hamar hiri baino gehiago (Miami, New York,

Los Angeles, Filadelfia, Atlanta, Dallas, Washington eta beste asko) bete dituzte, poliziaren bortizkeria salatuz eta Trumpen eta bere Gobernuaren aurka kargatuz. Amorrua bolbora bezala hedatu da.

Ez dute lortu altxamendu ikaragarria itzaltzea, ez dozena bat hiritan ezarri diren etxeratze aginduek (buruan errepublikanoak nahiz demokratik egonik) ezta Guardia Nazionala gero eta gehiago kalera ateratzeak ere. Soilik Minnesotan 13.000 polizia mobilizatu dituzte, azken 160 urteetako kopururik handiena.

Klase arteko borroka honen irudiak koronabirusaren pandemiak eragindako hildako eta kutsatutako eszena ikaragarriekin batera ematen ari dira. Gaixotasunaren hedapenak agerian utzi du Estatu Batuetako langile eta gazte gehienek bizi duten egoera prekariora, batez ere, herritar beltzen artean; Estatu Batuetako biztanleen %13,4a dira (327 milioi pertsona).

APM Ikerketa Laborategiak 40 estatutan bildutako zifiren arabera, afroamerikarrek zuriak baino ia hiru aldiz azkarra go hiltzen ari dira. Populazio beltzaren ehuneko handiena duten hiru estatuetan -Mississippi, Louisiana eta Georgia- COVID19 birusak eragindako heriotzen %70 beltzak dira. Chicagoko hildakoen %73 dira, Milwaukeekoen %81, eta gauza bera gertatzen da hiriburuan. Columbia konde-rrian hildakoen %77 afroamerikarrek dira.

Estatu aparatu arrazista, kapitalaren eta elite zuriaren zerbitzura

Munduko lehen potentzia ematen ari den eztanda sozial honek agerian utzi du AEBetako burgesiaren erakundearen arrazake-



ria organikoa. Zapalkuntza arrazista poliziaren, epaileen eta Estatu kapitalistaren muinean txertatuta dago.

Donald Trump da arraza-supremazismo zuri kapitalista eta erreakzionario honen adierazle nagusia. Bere "Make America Great Again" leloa arrazakeria eta xenofobia astintzen dituen bandera da, eta etengabe hauspotzen du kontsigna hori bere oinarri sozialaren artean: Mexikoko mugan harresia eraiki zuen, migratzailer mexikarrei tiro egiteko baimena eman zuen, musulmanen aurkako irain etengabeak egin zituen eta 2017an Ku Klux Klaneko faxista zurien alde egin zuen. Historial bikaina du.

Agerikoa da Donald Trumpek langile eta gazte beltz eta latinoen aurkako gorrotoa hauspotzeagatik nabarmendu dela, baina egoera ez da berria Etxe Zurian. Obamaren agintaldian, poliziaren esku hildako gazte eta langile beltzen kasuek gora egin zuten. Presidente ohiak ekipamendu militarra eman zien herrialde osoko polizia-sailei, eta horrek azaltzen du poliziaren indarkeriak eragindako heriotzen gorakada.

Arrazakeria, batez ere, klaseko auzia da. Eric Garner, Trayvon Martin, Mike Brown, George Floyd eta poliziak hildako guztien delitu bakarra beltzak eta langile klasekoak izatea izan zen. Segurtasun-indarrak, haien legeak eta justizia klase agintariaren interesen zerbitzura daude, hau da, gizarteko geruza pobreenak gupi-

darik gabe kolpatzen dituzten bankari eta enpresariaren interesen zerbitzura.

Langileen eta gazteriaren alderdi baten alde. Konfiantzarik ez Alderdi Demokratarengan!

Alderdi Demokrataren aparatua erakutsi du sistemaren zutabe bat dela eta bere sustraian klase nagusiaren interesen defentsa dagoela. Joe Biden presidentegaiak eskerrak eman zizkion Minneapoliseko alkateari, erailketan parte hartu zuten poliziak apartatzeagatik, eta eskatu dio ikerketa abian jartzeko!! Ez al du te nahikoa froga Floyden heriotzaren grabazioa? Biden ezkututzen saiatzen ari da AEBn milioika beltz pobrek jasaten duten zapalkuntzan duen erantzukizuna: Clinton gobernuan zela, 1994an eskola-garraioan segregazioaren aldeko "Crime Bill" ospetsuaren egilea izan zen.

Bernie Sandersek atzera egin ostean, langile eta gazteen alderdia sortzeko beharri buruzko eztabaida inoiz baino bi-ziago dago. Bernie mugimenduak babes handia irabazi zuen gazteen eta herritar beltz eta latinoen sektore zabalen artean. Mugimenduak zerbait frogatu bazuen zera izan zen: zapalduak beren bizitza eral-

datzeko duten premia atzeraezina. Sandersen aldeko olatua sortu izanaren oinarrian dagoen ezberdintasun soziala eta zapalkuntza gogortu egingo dira datozen hilabete eta urteetan.


Black Lives Matter 2016an sortu zen, eta milaka ekintzaile bildu zituen herrialde osoan. Black Panthers-en sorreratik ematen zen beltzen askapenaren aldeko mugimenduaren garapenik handiena izan zen. Hain zuzen ere, esperientzia hori eta mundu osoan milioika pertsonaren kontzientzia kolpatu duten beste asko dira Floyden hilketaren aurkako protesten iturria.

Langileen alderdi bat eraiki behar da ideia eta metodo sektarioak baztertuko dituen, ausardiaz lan egingo duena gizarte-mugimenduetan eta sindikatu handietan benetako politika sozialista defendatzeko; argi eta garbi azalduko duena beharrezkoa dela AEBetako bankuak eta monopolio handiak nazionalizatzea eta ekonomia demokratikoki planifikatzea jendea erreskatatzeko, eta ez plutokrazia.

Langileei eta gazteen osotasunari dei egin behar zaie protesta horietan parte hartzera, herrialdeko hiri nagusietan manifestazio koordinatu eta masibo berriak antolatuz, eta programa antikapitalista eta iraultzaile hori hartu behar dute oinarri.

Sistema ustel honekin amaituz bakarrik jarri ahal izango diogu amaiera arraza, genero eta klase zapalkuntzari. Asmo horiei guztiei erantzuteko, indar izugarria erakusten ari den langile klase eta gazte estatu-batuarrek, tresna propioak behar dituzte: Estatu Batuetan langile alderdi bat erakitzea berehala ekin behar zaion ezinbesteko eginbeharra da, borroka hau aurrera eramane eta irabazteko.

Black Lives Matter!



AEB artikulua eguneratua:

Arrazakeriaren aurkako altxamenduak ataka estuan jarri du Trumpen gobernua

► www.ezkeriraultzailea.net



Mundu mailako hondamendi ekonomikoa eta sozialismoaren aldeko borroka

Mundu osoa langabezia, pobrezia eta desberdintasun sozialen amesgaizto berri bat bizitzeko prestatzen ari da. Hondamenak ez ditu gutizia inperialistak eraitsitako herrialdeak bakarrik kolpatuko, basakerian are gehiago hondoratuz; nazio garatuenen populazioak ere gogor pairatuko ditu ondorioak.

Kapitalismoa erupzioan dagoen sumendi bat da. Horregatik, garrantzitsua da gogoeta egitea egoera honetara eramane gaituzten arrazoiei buruz eta egoerari aurre egiteko alternatiba planteatzea.

Pandemiaren aurrean Piñera eta Lenin Morenoren kudeaketa kriminalak Txileko eta Ekuadorreko klase-borroka astintzen du

Mundu guztian zehar krisi ekonomiko eta sanitarioaren kudeaketa kapitalistak krisipazio sozial indartsua eragiten ari da. Latinoamerika ez da salbuespena. Joan den udazkenean, Txile eta Ekuador herri altxamendu iraultzaile indartsuen eszenatokiak izan ziren.

Pandemiaren harira Piñeraren eta Lenin Morenoren gobernuak benetako sarraskia jarri dute martxan, osasun publikoko zerbitzuen gabezia ikaragarriarekin, gosetea zabalduz, gorpuak pilatuz eta uko eginez konfinamendu neurriak ezartzeari enpresari handien irabaziak ez kalteztzeko. Baina gainera, eraso neoliberal be-

rriak aplikatzen eta prestatzen dihardute gobernu hauek.

Masen mugimenduak berriro erantzun du eta mobilizazioak nahiz barrikadak eta protesta handiak ematen ari dira bi herrialdeetan. Ezkerreko erakunde eta sindikatu erreformistetak buruzagiek, altxamenduko iraultzaileetako borroka amaierara arte eramateari uko egin izanak baimendu die gobernu buru hauei agintean jarraitzea. Txilen nahiz Ekuadorren, esperientziak argi erakusten du sistema kapitalistaren baitan ez dagoela masen bizi baldintza duinik lortzerik eta irtenbide bakarra benetako iraultza sozialista bat egitea dela.



EAJ kanporatzeko ordua da!

Uztailaren 12an gure bozka EH Bildura eta murrizketekin eta langile klasearen aurkako erasoekin amaitzeko ezkerreko Gobernu baten alde doa!

Kaleko borroka da bidea!

EDITORIALA

Begi bistakoa da EAJ benetan urduri da-goela EAEko hauteskundeak ahalik eta azkarren egiteko. Apirileko deialdia go-goiz kontra bertan behera utzi zuenetik, Urkulluk kosta ala kosta eragotzi nahi izan du data gehiago atzeratzea, eta dena prestatu du apirilaren 12an egin daitezen.

Euskal eskuina beldur da, langile klasearen eta gazteriarren mobilizazioak arris-

kuan jar dezakeelako boterean jarraitzea. Eta ez da gutxiagorako. Urtarrilak 30eko greba orokorraren arrakastaren eta beste hainbat borroka sozialen ondotik oraindik argitu gabe dagoen Zaldibarko hondamendia gehitu zitzaion, non Eusko Jaurlaritzak ardurarik hartu gabe jarraitzen duen. Horri, osasun alarman zehar EAJren jardunak piztu duen haserre soziala batu zaio.

Gurutzetako Ospitaleko langileek Urkulluren bisitaren aurrean egindako protesta, pentsiodunek erresidentzien pribatizazioaren negozioari egindako salaketa zuzena, klasera itzultzearen aurrean langile sindikatuen aurkako jarrera eta Ikasle Sindikatuak deitu zuen ikasle greba... adibide batzuk baino ez dira. Mobilizazio sozialak inoiz baino gehiago seinatzen du EAJ patronalaren, murrizketen, ustelkeriaren eta errepresioaren alderdi gisa.

EAJren murrizketen altzora hedatu den pandemia

Osasun krisiak agerian utzi du, beste behin ere, EAJren benetako aurpegia. Bere “euskal oasia” gutxi batzuen negozioaren paradisua da, prekaritatea zabaltzearen kontura eta irabazi ekonomikoak denon osasunaren gainetik ezartzeko. EAJ aitzindaria izan da osasunaren pribatizazioan, PP bera ere gaindituz. 1991n, Osasun sailburu zen Iñaki Azkunak ospitale publikoak fundazio bihurtu zituen, kudeaketa pribatua sartzeko. Gaur egun, osasunera bideratutako diru publikoaren laurdena esku pri-

batuetara doa. 2007tik 2017ra, 900 ohe murriztu dira Hego Euskal Herrian. Murrizketen batez bestekoa Estatukoaren bikoitza da (%10,54 eta %5,23, hurrenez hurren). Emaizta agerikoa izan da: protokolo eta entsegu falta, % 40ko behin-behinekotasuna, lan gainkarga eta osasun langileei probak berandu egitea. Murrizketa horien altzoan hedatu da pandemia.

Gauza bera esan daiteke hezkuntzari buruz. Maiatza amaieran Eusko Jaurlaritzak itunpeko ikastetxe pribatuentzako laguntzetan 8,4 milioi euro onartu zituen, ustez irakasleak gaztetzeko. Ezer ez publikoarentzat. Hala ere, sindikatuak mobilizazioak egin behar izan dituzte, Kristau Eskola patronalak ez dituelako betetzen langileekin adostutako akordioak. Bien bitartean, EAJko Eskola Kontseiluko presidenteak elkarrizketa batean adierazi zuen, “austeritaterako eta elkartasunerako uneak direnez”, hezkuntza publikoan “kanpoko baliabideak lor daitezke boluntarioen, familien, praktiketako jendearen edo erretiroa hartu berri duten irakasleen bidez, horiek agian, prest baitaude eskolara pare bat orduz joateko”.

Zerbitzu publikoen pribatizazioa EAEan maila guztietako EAJko kargu ohiek maneiatzen duten negozioa bihurtu da. Jeltzaleen ate birakariak hamarkadetan zehar sortu duten ustelkeria sarearen izebergaren punta baino ez dute erakusten. Egoitza pribatuak eta Keralty bezalako itundutako osasun-enpresak horren adibide dira. Zaldibarrek zabortegeien kasua azaleratu zuen, baina askoz gehiago daude: industria, obrak, energia, ikerketa, kiroldegiak... zerrenda amaigabea da.

Urkulluren gobernuak ororen gainetik enpresen etekinak defendatu ditu. Ez

zaie axola izan osasun publikoa erabat kolapsatuta egotea, babes ekipamendu faltagatik osasun langileak etengabe kutsatzea edo egoitzetan izandako heriotzak. Jeltzaleentzat benetan garrantzitsuena ez dira langile familien osasuna eta bizitza, “koma ekonomikoa eragozte” baizik, haien poltsikoak ez daitezen kalteturik atera. Horrela izan da, eta horrela jarraitu nahi dute krisiaren aurrean.

Ez da inolako kasualitatea lan-erreforma bertan behera uzteko PSOE-UPk eta EH Bilduk lortutako akordioaren aurka kokatu izana. Martxoaren 5etik maiatzaren 20ra bitartean, EAEn 26.967 enpresetan ezarri dira aldi baterako lan-erregulazioko espedienteak eta 195.842 langileri eragin die. Patronalak 263,5 milioi euroko gastua aurreztu du soldatetan, nahiz eta aurreko urteetan enpresariak etekin apartak izan. Hori Osakidetza hilero kostatzen dena baino gehiago da, 250 milioi inguru. Noski EAJk “ez duela egoki” ikusten lan erreforma indargabetzea; izan ere, orain erabili nahi du hori patronalak eta aldi baterako espedienteak behin betiko EEE bihurtu, arrazoi ekonomiko objektibo eta abarregatik kaleratzeak justifikatuz eta milioika euro aurreztuz.

Hori gutxi balitz, Bizkaiko Foru Aldundiak martxoaren 18an, pandemia betean, iragarri zuen Foru Arau bat non funts putreek zerga ordainketan irabazien erdia bakarrik aurkeztu beharko zuten. Ekainean sozietateen gaineko zergaren %60ko ezo-hiko kenkaria onartu zuten. Horrela kudeatu du betidanik EAJk bere “autogobernua” eta kontzertu ekonomikoa, aberatsen alde, behin eta berriz bere bazkide kutunen babesa jasoz, PP eta PSE.



Euskal burgesia ofentsiba gogortzeko prestatzen ari da

Burgesia kontziente da mundu mailako krisi ekonomiko baten aurrean dagoela eta bereak ziurtatu nahi ditu boterean. Momentu kritiko hauetan, milioika euroko lortzen dituzte Estatuetatik beren negozio eta aberastasunak erreskatatzeko, austeritate, murrizketa eta pribatizazio plan berriak ezartzearen kontura.

Confedebak Aldi Baterako Erregulazio Espedienteak luzatzeko eta hedatzeko eskatu du eta enpresek ez ditzatela Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaindu. Patronaleko presidentek, Eduardo Zubiaurrek, argi adierazi zituen euren asmoak orain dela gutxi elkarriketa batean: “enpresak eta enplegua salbatzeko herrialde moduan hartu beharko dugun zor handiari aurre egiteko, jokaleku orekatu bat aurkeztu dugu, eusteko eta ondoren ekonomia berraktibatzeke; horrek zorpetzea ahalbidetuko digu eta, ondoren, zentzuzko epe batean, kontu saneatuak berreskuratzea, berriro ere prest egoteko, etorkizunean antzeko neurriak hartu behar badira”.

Nork ordainduko du Zubiaurrek hain xaloki aipatzen duen zorra? Argi dago langile familiak izango garela, hori ez badugu eragozten. Euren planak murrizketa gehiago dira, osasungintzan, hezkuntzan, pentsoetan eta soldatetan, 2008an egin zuten bezalaxe. Desastre honetara eramane gaituzten horiei ez ditugula beren errezetak onartuko esateko unea da, mobilizaziorik irmoena bultzatuz parez pare edukiko gaituztela argi uzteko unea.

EAJ kanporatu dezakegu, mobilizazioa indartzen eta langile klasearen aldeko politika altxatzen badugu!

EAEk azken legeingintzaldi honetan trantsizio garaitik egon diren mobilizazio handienak ezagutu ditu. Irailaren 30eko greba orokorrak 2019an euskal geografia osoan ugaritu ziren lan-gatazkak bateratu zituen: 400.000 egun inguru galdu ziren greben ondorioz, hogeitaz egon den greba jarduera handiena izan zen, eta lau aldiz biderkatu zen 2018ko kopurua.

Bizkaiko metalaren gisako mobilizazioen alboan, etengabe bete dituzte kaleak pentsiodunek, borroka feministak, gazte-riak aldaketa klimatikoaren aurrean, Kataluniako herriaren eta Altsasuko gazteen elkartzunean, edo Euskal Herriaren eta euskal presoen eskubide demokratikoen aldeko manifestazio erraldoiek...

Hori da eskuina erakundeetatik bota eta politika kapitalista guztiekin amaitzeko bidea eta lortzeko aukera handia dago. Baina horretarako, beharrezkoa da ezker abertzaleak eta EH Bilduk euskal patronalaren al-

derdiarekin erabateko konfrontazioa duen politika bat hartzea, bai legebiltzarrean eta baita kalean ere. EAJrekin “herri gisako irtenbideak” bilatzeko akordioetara iristeko ilusioak ezin dira eutsi inondik ere. Klaseko irtenbideak behar ditugu.

Egun aukera historikoa dago jeltzaleak Lakutik kanporatzeko eta ezker abertzaleak paper esanguratsua jokatu dezake hori lortzeko, argi esanaz eurak direla arerio nagusia, demagogia guztia agerian utziz eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea EAJk etengabe erasotzen dituen eskubide sozialen aldeko borrokari batuz. Programa eta estrategia horrekin babes zabala irabaziko litzake langile klasearen eta gazteriarren artean.

PSOE eta UP koalizio Gobernuaren esperientziak ere ikasgai handiak ditu zentzu honetan. Edo logika kapitalistarekin erabat hausten da, langile klasea defendatzeko neurri ausartak planteatzen dira —bankuen eta ekonomia kontrolatzen duten monopolioak nazionalizatzea esaterako— eta masen mobilizazioan oinarritzen da, edo azkenean botere ekonomiko handiek, IBEX 35ak eta bankuek beren baldintzak ezartzen dituzte eta gobernuaren politika markatzen dute. Egin daitezkeen erreforma txiki eta lotsatiak tanta bihurtuko dira ozeano erdian, baldin eta 78ko erregimen kapitalista kosta ala kosta defendatzen jarraitzen bada, eta proposatzen dena “batasun Nazionalaren” bidea eta klase arteko lankidetzaren politika bada.

Ekainaren 18an, Pablo Echeniquek, UPko bozeramailea Madrilgo Kongresuan, adierazpen benetan larriak egin zituen Felipe Gonzalez eta GALen ikerketa batzordea osatzearen aurka, “mundu guztiak daki zer gertatu zen” eta gai horrek “distrakzioa” ekar zezakeela esanez. Harek berehalakoa izan zen ezker konpro-

metitu eta militanteenaren oinarri sozialaren artean, bai Euskal Herrian zein Estatu mailan. Echeniquek berak jarrera zuzendu eta UPk batzordearen alde bozkatu behar izan zuen, baina azpimarratuz ikerketa proposamena EAEko hauteskundearen aurrean Koalizioaren Gobernu mindu nahi duen maniobra elektoralak zela. Horrek marra gorri oso serioak gaintzen ditu.

Greba orokorraren aurrean, Podemosko eta PSEko buruzagiak kontra agertu ziren. Are gehiago, euren botoekin EAJren aurrekontu antisozialak babestu zituzten, eskuineko agendaren jarraipena bermatuz, eta hori egin bazuten EAJk koalizio gobernu babesteko izan zen. Horregatik, EAJ botako duen ezkerreko gobernu baten proposamena ezin da abstraktua izan. Oso zehatza da: murrizketa sozialekin, pribatizazioekin eta etxegabetzeekin behin betiko amaitzea eta kontsekuenteki defendatzea kalitatezko osasun, hezkuntza eta etxebizitza publikoak eta mehatxupean dauden eskubide eta askatasun demokratikoak.

Ezker Iraultzaileko marxistek datoren uztailaren 12an EH Bilduri bozkatzeko deia egiten dugu. Baina ez dugu txeki zuri bat luzatzen, baizik eta praktikara eramane dadin milaka pertsonak dagoen-

neko kaleetan, greba orokorrean eta beste hainbat mobilizaziotan defendatu duguna: EAJ erakundeetatik botatzea, euskal eskuinarekin klaseen arteko lankidetzaren erroten moztea, eta ezkerreko indarrek Gobernu bat eratzea politika kapitalistekin hausteko.

Jakin badakigu abstentzioak eskuinari bakarrik egingo diola mesede. Baina badakigu botoa ematea ere ez dela nahikoa. Alternatiba bat eraiki behar da Euskal Herrian, langileen eta gazteen artean programa iraultzaile eta internazionalista bat defendatzeko, modu irekian planteatuko duena sozialismoaren aldeko borroka, autodeterminazio eskubidearen defentsarekin batera. 2019an Txilen, Ekuadorren, Aljerian, Sudanen, Frantziako Estatuan, langileen eta herritarren altxamenduek eta AEBn arrazakeriaren eta Trumpen gobernuaren aurkako borrokak erakusten dute indarra dugula errepresioa, etxeratze-mugak eta sistemaren gobernuak garaitzeko. Hondamendi kapitalistarekin amaitzeko eta mundua erroten eraldatzeko, langileok eta gazteok gizartearen gidaritzan hartu behar dugu.

Batu zaitez Ezker Iraultzaileari!

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldezkarria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

ezkeriraultzailea@gmail.com • Tel.: 685 708 281

Twitter: @EzkerIraultzailea • Facebook: Euskal Herria Sozialista

LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!

Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Klima aldaketa eta Covid 19

► www.ezkeriraultzailea.net

Mundu osoko zientzialari askok adierazi dute koronabirusa eta beste asko agertzea (Ebola, GIB, etab.) planetako biodibertsitatea suntsitzearekin lotuta dagoela. Klima aldaketaren oinarrian ekoizpen kapitalista dago. Basoen suntsiketaren eta pertsonentzat nahiz ingurumenarentzat hilgarria den kutsaduraren eta beste gaitz askoren erantzule zuzena da.

Gizakiak eta naturak etengabeko orekan egon behar dute, baina oreka hori

ezinezkoa da sistema honetan. Beraz, kontua ez da kapitalismoa hobeto kudeatzea, kapitalismoa suntsitzea baizik. Modu horretan bakarrik planifikatu ahal izango litzateke ekoizpena irizpide zientifiko eta sozialei jarraiki, biztanleriaren gehiengo zabalaren mesedetan, jasangarritasuna bermatuz, planetako baliabideak eta aberastasunak berreskuratuz. Gizadiaren emantzipazioa eta Lurraren salbazioa eskutik doaz.



Eusko Jaurlaritzaren ikasgeletarako itzulera geldiarazi dugu • Borrokak balio du!

IKASLE SINDIKATUA

Eusko Jaurlaritzak inposatu nahi zuen klaserako itzulera benetako porrota izan da ikasleok —ikasle greba orokorra deituz— irakasleekin eta familiekin batera egin dugun presioari eta antolakuntzari esker. Argi esan genuen eta berresten dugu, gure osasunarekin eta gure etorkizunarekin ez dela jolasten!

EAJak hezkuntza komunitatearen presioagatik egin du atzera

Eusko Jaurlaritzak ikasgeletara itzultzeko agindua arrazoi zehatz batengatik eman

zuen: patronaleko lagunak asebetetzea. Ez zen irizpide sanitario batengatik izan, eta are gutxiago hezkuntza irizpide batengatik; aitzitik, gu ikasgeletara bidaltzen hasi nahi zuen, gurasoak lanean hasteko eta enpresen irabaziak gizentzen jarraitzeko.

Halaber, lehentasuna eman diona azterketak egitea izan da, batez ere titulazioa eta goi-mailako ikasketetarako sarbidea jokoan dagoenean. Nekane Murgak esan zuen klaserako itzultzeak “behar den diziplina soziala” erakutsiko zigula. Horixe da euskal eskuinari eta patronalari hainbeste gustatzen zaion esplotazioaren diziplina.

Ikasle grebak eta ikasgeletara itzultzearen aurrean irakasleek agertu duten oposizioak berriro erakutsi dute borrokan bat eginez gero EAJ garaitu dezakegula. Datoren ikasturtean gure osasuna eta hezkuntza publikorako eskubidea bermatu ahal izateko, beharrezkoa da hezkuntza-komunitatearen borroka-plan bat altxatzea eta Eusko Jaurlaritzari eta PSOE-UPko Gobernuari eskatzea berehala abian jar dezatela hezkuntza publikoa erreskatatzeko plan bat. Elkarrekin borrokatuz, mobilizazio irmoekin hau eta askoz gehiago lor dezakegu.



Aski da! Langileok ezin dugu ordaindu krisi kapitalista!

Klaseko sindikalismo borrokalaria behar dugu enplegu eta lan-eskubide guztiak defendatzeko!

MANU ODRIOZOLA
*Ezker Iraultzaileko kidea
eta LABeko afiliatua*

Osasun krisiaren ondorioak jasateaz gain langile klaseak patronalaren erasoaldi ikaragarria jasaten ari gara gure lanpostuen eta lan baldintzen aurka. Argi geratu da koronabirusaren alarma egoerak lehendik eratzen ari zen mundu mailako krisi ekonomikoa lehertu duela eta horregatik “normaltasun berria” deitu dien

honetan erasoaldia ez dela inolaz ere barretuko. PSOE-UP Gobernuak buruek eta CCOO eta UGTko agintariek hainbeste propaganda egin dioten “ezkutu sozialaren” atzean IBEXaren eta CEOE patronalaren interesak bermatzen dituen itun soziala gailentzeko saiakera dago. Erasoaldi honen testuinguruan, behin eta berriro amore ematea lan eta pentsio erreformak desegiteko, eta kapitalista handien propaganda zabaltzea —Aldi Baterako Erregulazio Espedienteak alternatiba di-

rela defendatuz, etab.— langile klasea eskuak loturik entregatzea da.

Argi dago, langile klaseak eta gazteak badugula indarra erasoaldi honi aurre egiteko. Baina horretarako borroka sindikal eta mobilizazio sozial indartsuena eta irmoena antolatu behar dugu, alternatibak argi planteatuz, eta enpresa itxieren aurrean, enplegua defendatzeko beharrezkoa bada lantegien okupazioa, eta langileen kontrolpeko nazionalizazioaren alde egin.



Ez dugu kaleratzerik onartzen Nissanen: enpresaren nazionalizazioa, indemnizaziorik gabe eta langileen kontrolpean Lantoki guztiak okupatu behar dira, eta borroka zabaltzeko, borroka hau irabazteko!

EZKERREKO SINDIKALISTAK


Maiatzaren 28an, Nissan multinazionalak bere ekoizpen-jardueraren itxiera jakinarazi zion Gobernuari, Eremu Frankoan, Montcada i Reixac eta Sant Andreu de la Barca. Hainbat hamarkadatan esplotatuz eta langileei eskubideak murriztuz irabaziak lortu ondoren, hamaika diru-laguntza eta laguntza publiko baliatuz poltsikoak bete ondoren, parasito horiek langileekiko eta haien familiekiko mespretxua erakusten dute, 3.000 baino gehiago kalera botatz eta zeharkako 20.000 lanpostu baino gehiago suntsituz.

Nissanen borroka erreferentzia bihurtu behar da langile klase osoarentzat. Nissanen nazionalizazioa indemnizaziorik gabe lortzea eta lanpostu guztiak salbatzea guztiz posible da, baldin eta enpresan presentzia duten sindikatuak, eta berezi-

ki CCOO, UGTk eta CGTk, hori defendatzen badute eta borroka horren alde bideratzen badute.

Borroka planak neurri serioak eta enpresari erasoaren mailan daudenak hartu behar ditu: Nissaneko lantegi guztiak eta enpresa hornitzaileak okupatzea; manifestazio masiboen plan bat deitzea, herritar guztiei eta, bereziki, gazteei parte hartzeko deia eginez; greba orokorra antolatzea Bartzelonako probintzia osoan, eta 24 orduko lanuzte orokorra deitzea Estatu mailako automobilgintzaren sektore osoan, eta elkartasun lanuztea metalgintzako, ontzioletako eta portuetako enpresa guztietan.

Gaur egun, azken hamarkadetakoa beste edozein unetan baino aukera hobea dago Nissanen nazionalizazioa babesteko duen marea sozial bat altxatzeko eta behar besteko presioa sortzeko Gobernu zentrala eta Generalitatea neurri hori aplikatzera behartu daitezten eta Nissanen itxieraren mehatxuarekin dauden milaka lanpostuak salbatzeko.



Batasun nazionala eta klase arteko kolaborazioa erreakzioa hauspotzen duten politika okerrak dira

Ultraeskuinaren ofentsibaren aurrean, langile eta gazteon mobilizazio tinkoa

Ez dira pasako!

EZKER IRAULTZAILEA

Maiatzaren 23an, larunbata, Salamancako auzo elitista Espainiako banderekin eta sinbologia faxistarekin tuneatutako 6.000 luxuzko autoz bete zen. Ultraeskuinaren oinarri soziala ekintza betean erakusten zuten, golf-makilekin eta txoferrekin askatasuna aldarrikatuz “Viva Franco” oihukatzen zuten bitartean, langileen bizitzarekiko mespretxu osoa agertuz, eta klaseko gorroto koalizio gobernuaren aurka.

Abascalen eta Casadoren apustu nagusia “Espainiako kaleak betetzea” zen, baina estatu mailako mobilizazioa, kasurik onenean ere, oso urrun geratu zen euren helburutik. Hala ere, ultraeskuinaren erasoaldia ez da bere kabuz desegingo: beharrezkoa da langileen eta gazteen mobilizazio irmoa.

Patronalaren alderdia, “askatasuna” eta “Viva Franco” oihukatuz

Eskuinaren amorrua euren irabazi-iturriek ezin dutelako errendimendu osoan funtzionatu piztu da. Euren langileek familia kontzilioz neurriak eskatzen dituzte eta ezin dute nagusi hauei gustatuko litzaieken bezain beste ordu lan egin, euren hotel handiak turistik gabe daudelako, bertako jatetxe, denda, zinema, diskoteka, gimnasio kateak etab. kaltetuta daudelako.

Ez diote uko egingo beren irabazi ekonomiko lodi, eta badakite onena langile klasea estutzen jarraitzea dela. Gutxi iruditzen zaie zirkinik gabe Gobernuak IBEXari, bankuei eta enpresei eman dizkien 100.000 milioi euroak; ez dira konformatzen diru publikotik ehunka mila ERTE ordaintzarekin, haiek sosik jar ez dezaten. Eta lan-erreforma indargabetzeaz hitz egiten bada, haserre bizian jartzen dira. Krisia eta gaixotasuna pairatzen ditugunoi ematen dizkiguten ogi apurrak ere iraintzat jotzen dituzte. Dena nahi dute.

Patriotismoak, Konstituzioak eta “eskuin zentzudunak” ez dute erreakzioa borrokatzeko balio

PSOE-UP Gobernuak “batasun Nazionala” defendatzen du, krisi honetatik “denok batera” atera behar dugula baitio. Baina zer zerikusi dute Neguriko burges baten eta Otxarkoagako langile baten arazoez? Klase arteko batasuna goratzea —enpresariak eta langileak batera— eta “zentzuzko eskuina” dagoela eta horiekin kontatu daitekeela esatea, langileria ideologikoki desarmatzea eta begietara kea botatzea da.

Gobernu honek ere harro esaten du Konstituzioa dela eskuin muturra garaitzeko tresnarik onena. Baina azken urteotan argi ikusi dugu 78ko erregimeneko erakundeek, hala nola monarkia eta auzitegiak, Ibox 35aren boterea finkatzeko, herria zapaltzeko eta ultraeskuindarren oinarri soziala bultzatzeko eginak daudela.

Ez, ez Konstituzioarekin, ez poliziarekin, ez justizia burgesarekin, ez frankistaz jositako eta elite kapitalistaren zerbitzura dagoen Estatuaren aparatuekin, ez dugu geldiaraziko gure eskubideen aurkako erasoaldia. Amancio Ortega bezalako enpresariak gorai patuz edo CEOren erantzukizuna eta abertzaletasuna ospatuz, euren eskaera guztiei amore ematen zaien bi-

tartean, egiten den gauza bakarra gehiago balora daitezen laguntzea da. PSOE, UP eta CCOO eta UGTko buruzagien estrategia honek ez du balio, eta horri eutsiz gero, eskuin muturraren demagogiak okerrera egingo du hondamendi sozialeko testuinguru honetan, eta erreakzioa indartsuagoa izan dadin eta Gobernuaren berreskura dezan bidea zabalduko du.

Horregatik, premiazkoa da UPk lehenbailehen akatsa zuzentzea, bere oinarri sozialaren helburuei erantzutea eta klaseen arteko lankidetzaren estrategiarekin haustea. Horrek, enpresari handiei, bankuei eta eskuinari soilik egiten die mesede.

Erreakzioa geldiarazi mobilizazio irmoarekin. Inolako itunik ez eskuinarekin eta patronalarekin!

Vox, PP eta patronalaren aurka borrokatzeko behar duguna klaseko alternatiba politiko bat da, benetan sozialista, sistema horren logika usteldua apurtzen duena eta langileen eta gazteen indar ikaragarrian oinarritzen dena.

Ezkutu sozial bat nahi dugu, baina benetakoa: osasun pribatua eta farmazeutikoak nazionalizatzea eta milaka osasun-langile kontratatzea guztion osasuna defendatzeko; langileriak sortzen duen aberastasuna, eta gizartearen funtzionarazten duena, jendearen beharren zerbitzura jartzea, eta, horretarako, bankuak eta monopolio handiak nazionalizatu behar dira langileen eta haien erakundearen kontrol demokratikoaren pean. Hori da langabezia masiboarekin amaitzeko modu bakarra, herritarrentzako errenta minimoa bermatzeaz gain, 1.200 euroko langabezia-sorospena ere bermatzea, denei bizitza duina bermatzeko.

Union Podemoseko buruzagiek politika hori defendatuko balute, gure auzoetan batzorde antifaxistak eratzea sustatuko balute, bizitzen ari garen hondamendi sozialaren erruduntzat enpresariak joko baltuzte, eta murrizketen eta kontrarreformen aurkako borroka bultzatuko balute, aparteko babesa aurkituko lukete. Politika antikapitalista eta benetan sozialista hau da mehatxatzen gaituen hondamendiari alternatiba bat eskaintzen dion bakarra.

Kapitalismoa ezin da erreformatu. Mobilizazio gogorrenaren bidez lortzen ditugun konkistak ere aukera duten bezain laster kentzen saiatuko dira: horregatik, erabat boteretik kentzeko borrokatu behar da. Haien instituzioek eta konstituzioek ez digute balio borroka honetan.

Sistema honek eta haren defendatzaileek gizartean eragiten duten hondamendiaren aurrean, alternatiba sozialista bat behar dugu, krisi honek eragiten digun miseria guztia hautsiko duena. Arma horrekin garaitzen da faxismoa! Hori da behar dugun estrategia, ezker politiko eta sindikal osoko fronte bakar batena, benetako programa sozialista eta antikapitalista duena, klase arteko kolaborazioarekin apurtuko duena. Hori da behetik bultzatu behar dugun eginkizuna —iraganeko esperientziari eta etorkizunari bizkarra ematen dioten aparatuek desbordatuz—, eskuinari bidea itxi nahi badiogu eta erasora jo nahi badugu. Hori da Ezker Iraultzailetik defendatzen dugun aukera. Hori da gure klaseak behar duen aukera!



SOZIALISMOA da aukera bakarra

Covid-19aren pandemia modu gordinenean erakusten ari da sistema horren benetako aurpegia. Mundu osoan milioika pertsona babesik gabe daude koronabirusaren hedapenaren aurrean, gobernuen politika kapitalistek osasun-sistemetan eta gizarte-zerbitzuetan egin duten sarraskia dela eta. Finantza erakunde handien diktaturak gupidarik gabe gobernatzen du mundua, ondorio benetan lazgarriak utziz. Osasun-krisiari langile klasearen bizkar gainean ezarri nahi duten hondamendi ekonomikoa gehitu behar zaio, Gobernuak enpresarien irabaziaz babesteko milioikako erreskate paketeak onartzen dituzten bitartean.

Klase agintariak errezeta bakarra du krisi ekonomikoa honetatik ateratzeko. Gerra deklaratu digute langile klaseari. Gaur inoiz baino gehiago eskatzen zaigu gure bizitzak eta enpleguak sakrifika ditzagun kapitalaren irabazien aldreare aurrean.

Nahiz eta egun gizarteak inoizko baliabide material, teknologiko eta zientifiko handienak eduki, horiek pobrezia, langabezia, miseria eta gosea ezabatzeke erabili beharrean, errealitatea justu kontrakoa da. Esperientziak erakusten digu ezinezkoa dela kapitalismo berri eta gizatiarrago bat sortzea eta hori lortzeko saiakera oro porrotik handienara kondenatuta dagoela.

Modu bakarra dago amildegira garamatzan basakeria horri aurre egiteko: iraultza

sozialistaren alde borrokatuko duen alternatiba indarrez altxatzea, finantza botereek eta monopolio handiek kontzentratzen duten aberastasun guztia desjabetzea, eta langile klasearen kontrol demokratikoaren baitan sozializatzea. Ekonomia planifikatu eta sozialista gai litzake baliabide nahikoekin aurre egiteko osasun-hondamendiari, eta gizakion beharrak asetzeko baldintza duinak bermatuz denei, datozen belaunaldiari eta baita gure ekosistemari ere. Mundu berri baten eraikuntzari ekiteko ordua da. Ez dugu kapitalaren onurarako beldurturik jartzaturik eta alienaturik bizi nahi.

Horretarako beharrezkoa da langile mugimenduan sustraiak dituen alderdi iraultzaile bat eraikitzea, gazteriaren artean, ideia horiek fronte guztietan defendatuko dituen. Horixe da Ezker Iraultzaileak egiten ari garena eta azken 14 urteetan etenik gabe argitaratu ditugun Euskal Herri Sozialistaren orrien bidez defendatu duguna. Une honetan, pandemiak eragindako zailtasun guztien aurrean, Euskal Herri Sozialistaren bertsio digitala mantentzen dugu.

Ezker Iraultzailea bezalako alderdi borrokalari bat eraikitzeak konpromiso militantea, sakrifizioa eta ahalegina eskatzen du. Oso ondo dakigu gure independentzia

politikoa bermatu ahal izango dugula soilik gure independentzia ekonomikoa bermatzen badugu.

Badakigu krisiak gogor kolpatzen duela gure klasea, baina erakunde iraultzaile batek ezinbestean gure klasearen sostengu kontziente eta militanteari eutsi behar dio. Kapitalismoaren historiako krisirik handiena izango denaren testuinguruan, langile klasearen aurkako erasoaldi basati batean, babes hori inoiz baino beharrezkoagoa da.

Horregatik, dei egiten dizuegu basakeria kapitalista honi amaiera emateko beharra sentitzen eta partekatzen duzuen guztioi, zuen babes ekonomikoa ematera eta Ezker Iraultzailean afiliatzera.

Antolatzeke eta borrokarako garaia da!

Ekarpena diru sarrera batekin egin daiteke gure kontuan: ES05 3035 0156 83 1561023721 (Laboral Kutxa, Euskal Herria Sozialista) edo bizum bidez 629 724 830 zenbakian, eta afiliatu webgunearen bidez edo gure telefonoetara deituz.

Batu zaitez
EZKER
IRAUTZAILERA